

813 metroko bizikleta bide zati berri batek Lesaka eta Bidasoako Bide Berdea modu seguruan lotzea ahalbidetuko du


Jarduketak 750.000 euroko inbertsioa izango du, eta udalerriko hirigunea eta Otsango industriadetik abiatzen den bizikletentzako ibilbidea lotuko ditu

Asteazkena, 2022ko Abenduaren 7a



813 metroko bizikleta zati berri batek Lesaka eta Bidasoako Bide Berdea modu seguruan lotzea ahalbidetuko du. Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, 400.000 euro bideratuko ditu jarduketarako. Horri esker, txirrindularien segurtasuna hobetuko da, herriko hirigunea eta Otsango industriadetik abiatzen den bizikletentzako ibilbidea modu seguruan lotuz. Gainerako inbertsioa, 754.827,10 euro osatu arte, Udalaren kontura izango da.

(Albiste honi buruz gehiago jakin nahi baduzu, mesedez kontsulta ezazu gaztelaniazko bertsioa. Goiko nabigazio barra gorrian alda dezakezu hizkuntza).

 Ezker eskuin: Ladis Satrústegui, Lesakako alkatea; Bernardo Ciriza, Lurralde Kohesiorako kontseilaria; Berta Miranda, Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren zuzendari nagusia, bidegorria kokatuko den zonaldera eginiko bisitan.